



INGURUMEN SAILEKO ZUZENDARI NAGUSIAREN EBAZPENA, OÑATIKO ARANTZAZU AUZOKO SANEAMENDU PROIEKTUA INGURUMEN ERAGINAREN GAINEKO BANAN-BANAKO EBALUAKETA PROZEDURAREN PEAN EZ JARTZEA ERABAKI, ETA ETA PROIEKTUA GAUZATZEKO INGURUMEN BALDINTZAK EZARTZEN DITUENA

Aurrekariak

2008ko maiatzaren 19an, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honetan, Obra Hidraulikoetako Zuzendari Nagusiaren jakinarazpen bat jaso zen, bertan, Arantzazuko Santutegiko eta konplexu osoan kokatutako eraikinetako saneamenduak jaso eta bideratze proiektuaren idazketari ekiteko asmoaren berri emanez.

Saneamenduaren trazadura, zati handi batean, Aizkorri -Aratz Natura Parke eta Interes Komunitarioko Lekuan (IKL) zehar; beraz, Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusitik Zuzendaritza honi proiektuaren zein hartu beharreko ingurumen neurrien berri emateko eskatu zaio.

Lehendik aurkestitako proiektuaren helburua: Arantzazuko Santutegiaren inguruneko hondakin urak bilduko dituen saneamendu sistema egitea eta horiek Urteagain auzoraino bideratzea, non Oñatiko saneamendu sistemarekin lotuko den.

Santutegiko hondakin uren bilketan hiru hodi bide erabiliko dira. Hodi bide horiek Sindica Hoteletik, Goiko Bentatik eta barrutiko aparkalekutik atera eta Basilikaren atzealdean elkartuko dira eta handik Kurtzifizio Ermitaren inguruetaraino ponpatuko dira.

Puntu horretatik, 315 mm diametroa duen eta bost kilometro eta erdi inguru luze den estolda batek Urteagain auzoraino bideratuko ditu ur zikinak.

Estoldarako aurreikusitako trazatua beherantz joango zen GI-3591 errepidearen trazatuari jarraiki Gomistegiko harrobia pasa arte. Puntu horretatik aurrera, bidea alde batera utzi eta mendi mazelako kota garaiago batetik jarraituko zuen 700 m inguru (hor pista berri bat zabaldu beharko zen) eta, ondoren, gutxi-asko errepidearen paraleloan baina gorago doan mendi pista batekin lotuko zen. Aurreikusitako trazatuaren azken zatian, mendi pista alde batera utzirik, Aloña mendiko kordaleko ipar isurialdera pasa eta Urteagain auzora jaitsiko da.

Proiektua ez dago 2008ko urtarrilaren 11ko 1/2008 Errege Dekretu Legegileak, Ingurumen Eraginaren gaineko Ebaluaketa Legearen testu bateratu onartzen duenak, I. eranskinean aurreikusitako kasuen artean (kasu guztietan ingurumen eraginaren ebaluaketa prozedura egin behar da), ezta ere 1998ko otsailaren 27ko 3/98 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Orokorrak, I. eranskinean aurreikusitakoen artean.

Hala ere, aipatutako arauetako lehenengoaren 3.2.b) artikulua (1/2008 Errege Dekretu Legegilea) ezartzen duenez, Natura 2000 Sareko guneei zuzenean edo zeharka eragin diezaieken eta I. eranskinean sartu gabe dauden proiektu publikoen nahiz pribatuen kasuetan (aztertzen ari garen kasua multzo horretan sartzen da) beharrezkoa da ingurumen eraginaren baterako ebaluaketa egitea, aipatutako arauaren III. eranskinean ezarritako irizpideen arabera ingurumen organoak horrela erabakitzen badu; irizpide horiek proiektuaren ezaugarriari, kaltea jasan dezaketen



gune geografikoen ingurumen balioei eta bertan izan daitekeen eraginaren ezaugarriei lotuta daude.

Era berean, 1/2008 Errege Dekretu Legegileak, 17. artikuluan, honako hau ezartzen du, alegia, proiektuaren ingurumen eraginaren gaineko ebaluaketa egin behar izan ala ez erabaki aurretik, erasandako administrazio, pertsona edo erakundeei kontsulta egingo zaiela.

Zentzu honetan, goian aipatutako proiektuaren ezaugarriekin, Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honek kontsultatutako administrazio eta erakundeak honako hauek izan dira:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusia.
- Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Lurralde Antolaketako Departamentua
- IHOBE
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Kalitatearen Zuzendaritza
- Uraren Euskal Agentzia
- Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Partaidetza Saila
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Plangintza, Ebaluazio eta Kontrolerako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegiturarako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Larrialdietako Zuzendaritza
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritza
- Eguzki talde ekologista
- Ekologistak Martxan Gipuzkoa talde ekologista
- Aranzadi Zientzia Elkarteak
- Oñatiko udala
- Debagoieneko Mankomunitatea
- Deba Garaiko landa garapeneko agentzia
- ENHE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna)
- ENBA (Euskal Nekazarien Batasuna)
- Gipuzkoako Ur Partzuergoa
- Arantzazuko Lagunen Elkarteak

Erantzunak bidaltzeko emandako epea amaituta, Oñatiko udalarena, Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiarena, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzarena, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Partaidetza Sailarena eta IHOBErena jaso dira.

Oñatiko udalak, bere idatzian, udalaren Arau Subsidiarioen arabera, saneamenduaren exekuzioaren aurrean ez dagoela inolako oztoporik dio. Hala ere, txostenean bideratzearen behin betiko trazadura dauden bideetan zehar joateko eskaera egiten da mendi-hegalean eragin gehiagorik ez sortzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Inguruneko Zuzendaritza Nagusiak dioenez, trazadura, zati handi batean, Aizkorri-Aratzeko Natura Parke eta Interes



Komunitarioko Lekua zeharkatzen du, eta, baita Aloña izeneko 2.059,1 zk.dun Erabilgarritasun Publikoko Mendia ere. Era berean, honako hau dio, alegia, proi ektuak erasandako eremua Natura Parkearen gunez guneko banaketan babes gune eta nekazaritza eta abeltzaintzako erabilerako guneek osatzen dutela; beraz, Natura Baliabideen Antolamenduko Planean (NBAP) ezarritako araudiaren arabera, honelako obrak onar daitezke gune horietan, prestatzen ari den Erabilera eta Kudeaketako Plan Zuzendarian (EKPZ) arautu behar badira ere. Proiektuak erasandako eremuak duen Erabilgarritasun Publikoko Mendi izaera dela eta, Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuak obrak egiteko behar den okupazioa ere baimendu beharko du. Txostenak dio, baita ere, trazadurak interes komunitarioko hainbat habitat zeharkatzen dituela.

Azkenik amaitzen du esanez, printzipioz, Foru Aldundiko Mendietako eta Natura Ingurune Zuzendaritza Nagusiak duen informazioaren arabera, ez dela aurreikusten obrak espazioaren osotasunean eragina izan dezaketen erasanak sortzea. Hala ere, izan litezkeen eraginak ezagutu eta horiek ahalik eta txikienak izan daitezen, komenigarri eta nahikotzat jotzen du ingurumen eraginaren gaineko ebaluaketa erraztu bat egitea.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Gipuzkoako Lurralde Zuzendaritzak dioenez, ez du proiektuan desadostasunik aurkitu, eta, beraz, ez du inolako behaketarik egiterik beharrezkotzat jotzen.

Uraren Euskal Agentziak dioenez, planteatutako jarduketak ez du jabari publiko hidraulikoan eraginik, eta, jarduketak sor litzakeen ingurumen eraginak direla eta, dokumentua Ingurumenaren Kalitate Zuzendaritzara igorri behar da zuzen ebaluatu, eta, hala balegokio, eragin horiek saihestu eta ahalik eta txikienak izan daitezen ezarri beharreko babes neurriak zehaztearren.

Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza Zuzendaritzak, bestalde, 2000 Natura Sarearen Behatoki Iraunkorra izanik, honako hau ebazten du:

1. Aizkorri-Aratz IKLren artapen helburuak diren interes komunitarioko espezie (batez ere Aitxuriko sai arreko habiak egiteko lekuaren gainean) eta habitaten gaineko (4030, 4090, 6210* y 6510) erasan nabarmenak sor litezkeela, eta, beraz, Habitaten Arzteztarauaren 6. artikuluan 3. atala aplikatuz, proiektuaren ebaluaketa egokia egitea beharrezkoa dela.
2. Edonola ere, proiektuak 2000 Natura lekuetarako Arzteztarauaren 6.2. artikuluan ezarritako prebentzio erregimena errespetatu behar duela, kasu honetan, gutxienez, dagokion araudia betez, eta txostenean aipatzen diren babes neurriak ezarriz.

Proiektuaren ingurumen eraginaren gaineko ebaluaketa prozedurari ekiteko beharri dagokionez, txostenak dio 2008ko urtarrilaren 11ko 1/2008 Errege Dekretu Legegileak, Proiektuen Ingurumen Eraginaren Gaineko Ebaluaketaren Legearen testu bateratua onartzekoak (proiektuaren ezaugarriak, proiektuaren kokapena eta izan litekeen eraginaren ezaugarriak), III. eranskinean ezarritako irizpideetan oinarrituta, eta Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetza Zuzendaritzaren eskumenaren alderdietatik emandako informazioarekin, proiektuaren ingurumen eraginaren gaineko prozedurari ekin behar zaio.

Azkenik, IHOBek bere txostenean dioenez, esku hartzeko xede den gunean ez dago lurra kutsa dezaketen jarduera eta instalazioak dituzten lurzoruen inbentarioan jasotako partzelarik.



Ebazpen hori eman ondorengo erantzunik jasoz gero, Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzara bidaliko da, proiektuaren idazketan kontuan har dadin.

Kontsulta prozedura egin ondoren, eta bi zuzendaritzen artean egindako bilera teknikoak direla eta, Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak jakinarazten dio Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honi aurreikusitako estoldarako trazatua aldatzea erabaki dela, ingurumen gaineko eraginak gutxitzeko. Oraingo honetan, estolda osoa GI-3591 errepidetik joango da Urteagain auzoraino (eta ez bakarrik Gomistegi Harrobiaren alderaino).

Proiektuaren kokapena

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusi honetan dagoen informazioan zein egindako kontsultei emandako erantzunetan beste hainbat administrazio eta erakundeek emandakoan oinarrituta, honako hau ondorioztatzen da:

Proiektuak erasandako eremua malda handiko mendi hegalez osatuta dago. Paisaia nagusiki belardi eta basoko birpopulatzeek osatzen dute, jatorrizko zuhaitzez osatutako landaredi edo balizko landaredi orbanak eskasak dira, eta, eskuartean dugun eremuan ipar hegalean pagadi kaltzikolak eta hego hegalean *Q. Pubescens*-ekin batera, harizti eutrofiko eta erkamezti/harizti kaltzikoak osatutakoa da. Azken formazio horrek interesa du Gipuzkoako Lurralde Historikoan eskasa baita.

Estolda, ia trazadura osoan, Aizkorri-Aratzeko Natura Parke eta Interes Komunitarioko Lekutik kanpo doa, nahiz eta horien kanpoko mugatik oso gertu, ja danik artifizializatuak dauden lurzoru aprobetxatuz (GI-3591 errepedea, bideak, urbanizatutako eremuak, e.a.). Era berean, eremuak 1992/43/CEE Arteztarauak interes komunitariokotzat izendatutako hainbat habitat ditu. Zehazki, Aloña mendiaren hego hegalean, trazadurak zeharkatzen duen zatian, interes komunitarioko ondorengo habitatetan hainbat orban badira:

- 6510 Altuera gutxiko segarako belardi pobreak
- 6210 Erdi naturalak diren belardi lehorrak eta substratu karetsuen gaineko sastraka faziesak (*Festuco-Brometalia*) (*orkidea nabarmenak dituzten parajeak)
- 4030 Txilardi lehor europarrak
- 4090 Txilardi oromediterraneo endemikoak elorri-triskarekin

Eskuartean dugun eremua Hegaztien 79/409/CEE Arteztarauaren I. Eranskinen jasotako hainbat espezieren habitata da. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzako Biodibertsitate eta Ingurumen Partaidetzako Zuzendaritzaren txostenean aipatzen denez, Aizkorri-Aratz mendi-zerraren mendigunea sai zuri (*Neophron percnopterus*), sai arre (*Gyps fulvus*) eta belatz handiarentzat habiak egiteko gune garrantzitsua da. Espezie horiek, bestalde, Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan jasota daude. Era berean, ugatzarentzat (*Gypaetus barbatu*) interes bereziko gunea da. Espezie hori Katalogoan "galtzeko zorian" dagoen espezieetat sailkatuta dago.

Aztertzen ari garen gunea, bestalde, garrantzitsua da Habitaten 92/43/CEE Arteztarauaren eranskinetan zein Euskal Katalogoan jasotako hainbat saguzar espezieren presentzia dela eta, eta Aloña mendiko hegaletan elur-lursaguaren (*Chionomys nivalis*) banaketa gunearen parte dira. Espezie hori Mehatxatutako Espezieen Euskal Katalogoan "Arrarotzat" jotzen den espezieetat sailkatuta dago.



Halaber, gunea bere paisaia balioarengatik da garrantzitsua, batez ere, ingurune horretan egiten den mendi eta aisialdi erabilera dela eta, baita natura parkearen izaera dela eta; horregatik, trazadurak zeharkatzen dituen ikusizko arroak EAEko paisaia berezi eta nabarmenen artean katalogatuta daude.

Azkenik, aztertzen ari garen guneko elementu sentikorren artean, gunear en hidrogeologia garrantzia kontuan hartzekoa da, bertatik iturburu ugari elikatzen baitira, baita akuiferoen kutsadurarekiko duen hauskortasuna ere.

Jaso dezakeen eraginaren ezaugarriak

Hodi biltzailearen eraikuntzak trazadura osoan hodiak lurperatzeko zanga bat irekitzea eskatzen du, eta honek denborazko eta zuzendu daitezken igurumen eragin batzuk sortzen ditu (zarata, hautsa, higadura prozesuak, e.a.). Lehen esan denez, Obra Hidraulikoetako Zuzendaritza Nagusiak estolda, ia trazadura osoan, GI-3591 errepidetik joango den irtenbidea hartu du, lurzoru ez antropizatuetatik pista berriak eraikitzea sahiestuz. Era honetan lortzen da: landarediaren belar-sastraka ez garbitzea, aurreko atalean aipatutako interes komunitarioko lau habitat motetako orbanak ez etetea, eta estolda eraikitzeagatik sortzen diren paisairen gaineko eraginak gutxitzea, dagoen azpiegitura baten azpitik joango delako. Aurrekoaren arabera, esan daiteke proiektuak Habitaten Arteztarautik ondorioztatutako babes konpromisoetan ez du eraginik, hain zuzen ere, interes komunitarioko habitaten aldeko artapen egoera mantentzearena.

Babestutako espezieen edo interesekoen gaineko erasanari dagokionez, hodi biltzailearen eraikuntzak harrapari harkaiztarren populazioaren gaineko eragin negatiboak izan ditzake; espezie horiek, oro har, giza jarduerak sortutako eragozpenekiko oso sentikorrek dira, habiak egiteko garaian, bereziki. Sai arreak zein sare zuriak Orkatzategiko mendi arteko guneeetan egiten dituzte habiak, 1 Km baino distantzia txikiagoan. Halaber, Aitxuriko haitz gunean, GI-3591 errepedea, eta beraz estoldarako trazadura, sai arre bikote baten habiak egiteko lekutik 200 metro eskasetan kokatzen da. Zentzu honetan, Eusko Jaurlearitza Biodibertsitate Zuzendaritzak eta Ebazpen honek ezartzen dituzten babes neurriak kontuan hartzean ez dirudi proiektuak espezie horien gaineko erasan garrantzitsuak sor ditzakeenik.

Beraz, proiektuaren ezaugarriak, erasandako guneko ingurumen sentikortasuna eta izan litekeen eraginaren ezaugarriak kontuan hartuta, eta 2008ko urtarrilaren 11ko 1/2008 Errege Dekretu Legegileak, ingurumen eraginaren gaineko ebaluaketa legearen testu bateratua onartzekoak, III. eranskinean ezarritako irizpideak aplikatuz, eta 2008ko maiatzaren 20ko 36/2008 Foru Dekretuaren 11.2.1. b) artikuluan aurreikusitakoa betez, Ingurumeneko Zuzendari Nagusi honek,

E B A T Z I D U

Lehenik.- Arantzazuko saneamendu proiektua ingurumen inpaktuaren banakako ebaluazio prozedurapean ez jartzea, zeren, buruturiko azterketaren ondoren, horrek kontrako inpaktu nabarmenak ez dituela eragingo baiteritzogu, baldin eta proiektuaren sustatzaileak ingurumen eta paisaiaren lehengoratze egokia bururatzen badu eta eremu horretako balioen gainean proiektuak izango duen inpaktua minimizatu beharrez txosten honetako hurrengo puntuan ageri diren neurri prebentiboak eta zuzentzaileak modu eraginkorrean mamitzea eta betetzea bermatzen badu.

Bigarrenik.- Proiektua burutzeko ondoko neurri babesleak eta zuzentzaileak ezartzea:



- Obra guztian, ez da erabiliko proiektua gauzatzeko behar-beharrezkoa den azalera baino gehiago; hori dela eta, hartu beharreko eremu azalera mugatuko (balizatuko) da, hala trazatuari dagozkion alderdietan nola gainerako azpiegiturei dagokienez (makineria parkea, lanerako materialak aldi baterako biltegitratze aldea, hondeatzeko materialak metatzekoa, etab.). Makineriaren zirkulazioa ahalik eta gehien murriztuko da mendibideetatik, hartarako egokituriko bideetatik eta aparkatzeko eremutik kanpo.
- Hegazti harkaiztarren populazioen gaineko erasan negatiboak saihestuko da; beraz, obra plana sai arrearen ugaltzeko aldiaren arabera egokitu beharko da (*Gyps fulvus*). Horrela, hazte guneetatik hurbileko zatietako exekuzioa ugaltzeko alditik kanpo (urtarril eta abuztu bitartean) egin behar da.
- Paisaiaren aldetik lehengoratze egokia egingo da, hartarako gunee bakoitzeko berezko landaredi serieak erabiliz betiere eta paisaiako elementurik baliotsuentzat eta nabarmenentzat hartuak direnak lehengoratzen saiatuz (bertako espeziez osaturiko basoak, heskaiak, etab.). Trazatuak komunitate intereseko habitatei eragingo dien tokietan, lehengoratzeak habitat horiek berrezartzea izango du helburu. Belardiak mugarriztatzen dituzten heskaiak edo harresiak eraginik gerta daitezkeen tokietan, horiek berriro jatorrizko egoeran jarri beharko dira.
- Eremu horretako kalteberatasun handia eta garrantzia kontuan izanik, era guztietako solido edo likido kutsatzaileak botatzea edo isurtzea ekidin beharko da eta beharrezkoak izango diren neurri babesle eta zuzentzaileak hartuko dira obretatik datozen solido esekiez kargaturiko jariatze urak ubide naturaletara ez daitezkeen iritsi. Beharrezkoa izanez gero, urak bideratzeko eta sedimentuak atxikitzeko gailuak proiektatu eta gauzatu dira, hala nola hesi irazleak. Nolanahi ere, ez da lur mugimendurik egin beharko euri jasak izango diren egunetan.
- Lur mugimenduak egingo direnean, lur beltza atera, metatu eta zabalduko da era berezian, eragindako eremuetan lehengoratze eta landareak berriz ezartzeko lanak erraztearren.
- Soinu eragozpenak ekidingo dira lanak egiten diren bitartean. Obren egikaritzan erabilitako makineriak eta ibilgailuek sorturiko zaratak 212/2002 Legegintzako Errege Dekretuan ezarritakoa beteko du, bertan arautzen baitira aire zabalean erabiltzen diren makina jakin batzuek egindako zaratak.
- Lanak egin bitartean sorturiko hondakinak (lur mugimenduen soberakinak, erabilitako olioak, etab.) 1998ko apirilaren 21eko 10/1998 Hondakinen Legeak ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.
- Proiektua gauzatzen den bitartean, lanetako eremuak berak eta horien eraginpeko ingurunea (makineria parkeak, makinak igarotzeko eremuak, sarbide aldeak eta espazio publikoak, etab.) garbitasun egoera onenean atxikiko dira. Behin lanak amaiturik, garbiketa kanpaina zorrotza burutuko da eta proiektuaren eragin eremuak lan hondakinetatik guztiz garbi geratu beharko du.
- Eremu hori, hala badagokio, Historia-Arkeologia eta Arkeologia Ondareari (Balizko Arkeologia Guneen Izendapena, interes historiko-artistikoduntzat harturiko eraikinak, etab.) atxikitzea aurreikusteko behar diren kautelazko neurriak eta neurri zuzentzaileak ezarriko dira, baita lanak gauzatzen diren bitartean horri legozkiokkeen jarraibideak ere. Lur erazte eta harrotze lanetan arkeologia izaerako aztarnaren bat agertuz gero, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kultura Zuzendaritza jakinaren gain jarriko da berehala eta berak adieraziko ditu hartu beharreko neurriak.
- Parke Naturalaren eremuan bide berriak zabaltzeari dagokionez, 75/2006 Dekretuak, Aizkorri-Aratz aldeko Natur Baliabideak Antolatzeko Plana onartzen duenak, ezarritako baldintzak eta baimen erregimena bete beharko dira.



Donostia, 2008ko urriaren a

INGURUMENENKO ZUZENDARI NAGUSIA,

Sin.: JAVIER ZARRAONANDIA ZULOAGA